

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 100.000 euroko diru-laguntza eman die 35 gazte-elkarteri

*Helburuak proiektua garatzea da gazteen partaidetza bizitza sozialean areagotzeko eta beren bizi-kalitatea hobetzeko*

Viernes, 12 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren bidez, 100.000 euroko [diru-laguntza](#) eman die 35 gazte-elkarteri proiektuak garatzeko. Haren helburua gazteen partaidetza bizitza sozialean areagotzea eta beren bizi-kalitatea hobetzea da.

Aurkeztutako proiektuak honako hauei lotuta daude: prestakuntza eta enplegua; osasunerako hezkuntza; indarkeria, arrazismoa eta sexismoaren prebentzioa; aukera-berdintasuna; boluntariora; aisialdi eta astialdi osasungarria sustatzea; elkartegintza sustatzea ingurumena zaintzeko orduan; aisialdiaren beste kultura bat erabiltzea; eta gazteriaren sustapen artistiko-kulturala.

Elkarte onuradunak, bai eta haietako bakoitzerako laguntza ere, honako hauek dira: A. ADI-Gazteria Atala (949 euro); A. Eguaras aisialdi-taldea (3.360 euro); A. Iruñeko Jóvenes para Cristo (1.767 euro); A.J. Irati taldea (3.360 euro); A.J. Izaba taldea (3.360 euro); A.J. Kintoa taldea (3.360 euro); A.J. Mendaur talde unibertsitarioa (3.360 euro); A.J. Dos o Más (3.360 euro); A.J. Atriliako El ukelele (3.360 euro); A.J. Garaiz (3.360 euro); eta A.J. I Becchi (3.360 euro).

Azkenik, ondorengoek ere diru-laguntzak jasoko dituzte: Scout Baracea taldea (3.360 euro); Scout Dendari Izar taldea (3.360 euro); Scout Gundemaro taldea (3.360 euro); Scout Ibaialde taldea (3.360 euro); Scout Jairoi taldea (3.360 euro); Scout Lykos taldea (3.360 euro); Scout Mikael taldea (3.360 euro); Scout San Andrés taldea (3.360 euro); Scout V<sup>a</sup> Tropa taldea (3.360 euro); Tafallako M.J. Parroki artekoa (3.360 euro); eta Nafarroako Scout Katolikoak (3.327 euro).



Proiektuak ingurumena zaintzeari edo aisialdiako beste kultura bati lotuta daude, besteak beste.